

# ZAR

**BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\***

250n. zenbakia  
jorraila 2000



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
KULTURA SAILA  
LAGUNTZAILLE



**SETIEN GOTZAIÑA  
URIARTE GOTZAINA'RI  
ARTZAIN-KATXABEA ESKURATZEN**

(DEIA'TIK ARTUA)

# LUIS BARIAZARRA ADISKIDEARI ESKUTITZ LABURRA

Adiskide:

Karmel adizkariaren 229n. zenbakian, kultura-arloan eta 3n. orrialdean asita, zure idazlan gogoangarri bat irakurri al izan dot. Euskerearen kondaira edo edestiari begiratuta azterketa egiten dozu millaurteko au amaitzera goazen une onetan eta erruki berezia agertzen dautsezu bizkaierari eta zuberoreari. Neure euskalkiari dagokion aldetik eskerrik asko!

Or agertzen dozuz euzkaltzale Bazkuna, Ekin, Euskerea, Karmengo Argia, Argia Egutegia, Zeruko Argia, Euskera, Karmel... Ainbat idazle be aitatzen dozuz, baiña onein izenak ez dodaz emen barriro agertuko. Gero euskera batuaren eta atxearen arazora sartzen zara zalaparta ta asareak amaitu dirala esanez. Azken urteotan euskalkian idatzitako ainbat lan agertu ei dira. "Mendebalde" mugimendua ardatz dala eta lekuan lekuko aldizkari batzuen joera ez ei da zure gogokoa. Dana irakurri ondoren itaun batzuk, adiskide:

Ez dozu ezagutzen AGUR izena eukan aldizkaria?

Ez dozu ezagutzen gaur Argitaratzen dozun ZER aldizkaria?

Ez dozuz ezagutzen Bizkai'ko euskeraz idatzi doguzan liburuak?

Eta Bilbao'ko Euskerazaleak? Eta Labayru?

Eta Euskerazaintza Euskerearen Erri-Akademia?

Zeu Bizkai'ko euskerearen lagun izan eta zergaitik ia beti batua erabilli zeuk, oraingo onetan lez?

Itaun oneik nire barruko miña agertu nai dautsue eta zure jokabide ori ez dala zuzena agertzera bearturik nago.

Parkatu gogorregi berba egin ba'dautsut baiña parkamena eskatzeak ez dau esan nai egia ukatzea.

Biotzez agurtzen zaitu aspaldiko adiskide dozun.

**OLAZAR'tar Martin'ek**



# DONOSTIA'N GOTZAIN EUSKALDUNA

(2000-02-27)

Pozez bete ginduzan oraintsu eldu jakun albiste batek: Zamora'n Gotzain dagoan Uriarte ta Goirizelaia'tar Juan Maria Jauna Donostia'ko Gotzain izendatu dabe.

Eta ona emen Rouco Kardinalak DEIA'n diñozan berbak: "Zuek guztiok itxaroten zenduen albistea izan dala uste dot... Geuk be itxaropen berbera zuekaz alkar banatu dogu eta gauzea oso ondo egin dalakoan gagoz".

Berba oneik irakurrikeran itaun bat etorri jakun burura: Eta zergaitik ez zan bardin jokatu Iruña'rako, Gasteiz'erako eta Bilbao'rako gotzaiñak izendatu ziranean? Izendapena gertatzeko arduradunak beste batzuk ziralako izan ete zan? Bai, Rouco jauna, oso atsegin izan jaku Eleizearen jokabide barri au. Jarraitu egizue bide orretatik aurrera. Euskaldunen fedea esker ona izango dautzue. Baiña izendatze au Setien Gotzain euskaldunaren ordezkoa bear zalako eta onek, bear ba'da, eskatu ebalako izan ete da? Orrelan ba'litz nik auxe esango neuskizu: Gotzaiñak izendatzen dozuezenean, entzun egizue Erriaren guran biziak, Gontzain euskaldunak izateko gurariak. Orixe berori diñotsat idazki au irakurteko aukerea ba'dau Sukia Kardiñalari be. Euskalduna dogu au baiña ez dot uste bere aldian guk Gotzain euskaldunak izateko alegin aundirik egin dauanik.

## DONOSTI'RA

Uriarte'tar Juan Mari Fruniz'tarra dogu. Berak maite dau bere erria eta erriak be bai bera. Iru gotzain Fruniz'tar daukaguz munduan, Donostia'n Juan Mari, Peru'n Orbe'tar Benantzio eta Puerto Rico'n Mallona'tar Iñaki, azkenengo bi oneik pasiotarrak. Irurak etorten dira noizean bein, udan edo al dabeanean, euren erria ikertzera eta pozik artzen doguz gure eleiz-alkarte edo parrokian.

Gure Juan Maria Jauna Donosti'ra sartu eta ango ardurea artu dauanean, zelan ez, Fruniz'tarrak geie-

nak eta Mungia'tik banaka batzuk joan giñan ara: Bazkaltzeko Zarautz'era eta lauretarako Donosti'ra. Guztiz 103 Fruniz'ek 300 biztanle ditu.

Zarautz'en bazkaltzeak luzetxu urten euskun eta nai genduan baiño berandutxuago eldu giñan. Dana dala, sasoz. Eskerrak osterera au gertatu ta eratu eben Maribi'ri, Luzio Mallonari eta beste batzui.

Gaiñera Setien gotzaiña be, ikaskidea ta adiskidea dot eta poz aundia neukan eleizkizun onetan kideko izateko.

## ELEIZKIZUNA

Giputzak eleizkizun ederra be ederra gertatu eben, ondo eta zeatz eratu. Dana ez euskeraz, baiña bai geiena.

Lenengo ogeta amabost gotzaiñen sarrera. Euskeraz abesteten genduan artean urreratu ziran guztiak eurentzat gertauta egozan lekuetara. An gengoan, inguruan, 300 abade. Geienak giputzak, Zamora'ko



Setien Gotzaiña Uriarte Gotzaina'ri artzain-katxabea eskuratzen.

(DEIA'tik artua)



Gotzain Barria ta lengoa kardinalak, goi-gotzaiñak eta gotzaiñak mezan.

(DEIA'tik artua)

batzuk eurena izandako Gotzaiñari laguntzen, eta Bizkai-ko batzuk be bai. Gotzain-eleizea, ordu bat baiño geiago lenagotik, eleiztarrez bete-beterik egoan. Nuntzio'ren ordezeko batek Aita Santuaren izenean berba egin eban gotzain biai begira eta urren-go Pagola Gotzain-Ordezkariak izendapen-agiria irakurri eban. Ondoren, alboan doan argazkian agertzen dan lez, Setien Jaunak artzain-makilla emon eutson Juan Maria Jaunari, baita besarkada bero bat be. Une onetan entzun ziran txalorik beroenak erriaren alde-tik. Beste une baten be, geroago, entzungo dira txalok: Uriarte Jaunak bere itzaldian Setien Jauna goratu eta beronen samintasunak aitatu ebazenean.

Ondoren, Jainkoa goratzeko, eleiz-giro onetan "Aintza Zeruan..." abestia abestu zan.

Jarraian Eukaristia: Irakurgai bereiziak, abesti ederrak... Baiña esan dagidan zerbait Gotzain Sartu-Barriaren itzaldiari buruz. Itzaldia zeatz gertatua izan zan, itzak ondo neurtuta, olakoak egiten Juan Mari'k ondo dakian tez. Itzaldi orretan nik argi ikusi neban aurreko Gotzaiñaren, Setien jaunaren, bidea jarraituko ebalta eta erabilli ebazan itzak eurak be, sarritan, aurreko gotzaiñaren idazkietatik artuak ziran. Orregaitik, pizka bat arrituta geratu naz "Razón" izparringiak itzaldi orretan jokabide barri

bat ikusten dala esan daunean. Iraungo ete dau orreirin eritxi orrek?

Eleizkizuna amaitu zanean Gotzaiñak altara-ingururitik urrindu ziran, eta, zorionez, neure ondotik igaro ziran. Pozik agurtu al izan neban, agurtu eta besarkatu, Zirarda Gotzaiña, baita Barbastro ko Gotzain izan dan Etxebarria tar Ambrosio, gure Gotzaiña dogun Rikardo Jauna ta beronen laguntzaillea, Urkiola'ko Garagordobil'dar Biktor Gotzaiña eta ainbeste berotasun barik, artu-emon gitxiago izan dogu alkarragaz-eta, Sukia kardiñala.

Aureskua egin ondoren "Agur Jesus'en ama" abestu zan.


Eleizkizunaren ostean gure Juan Mari'k erritarrak agurtu ebazan: Beronen senideakaz-eta egon ondoren, ordu bat igaro zanean, Fruniz'tarrak taldean urreratu gintzazan gure erritar dan gotzaiña agurtzeko. Ez euskuen itzi urreratzen eta errazoiz, baiña urriñetik esan euskun laster etorriko zala gure artera. Beste ordubete iraun eban eleiztar barriak agurtzen.

Eta, amaitzeko, egun onetan izan genduan samintasun baten barria be emon-bearrean nago: Gure tarrantak Fruniz'erantza urteteko gertatu ziranen, gutariko bat falta jakun. Ordubete ibilli ziran eratzailleak beronen billa eta ezin aurkitu iñondik be.



Setien eta Uriarte Gotzaiñak alkar besarkatzen.

(DEIA' tik artua)



Uriarte Gotzaiña erritarrak agurtzen.

(DEIA' tik artua)

Tarrant batek urten egin eban eta bestea geratu zan zain. Urrengo egunean pozik jakin al izan dot galdu jakun gizon ori gu baiño lenago bere etxera, Botiola'ra, eldu zala. Guri esan barik Donostia'n autobusa artu eban eta Bilbao'ratu, eta Bilbao'tik Mungia'ko autobusa artu eta gero taxi baten etxera. Gure txango-kide onek ez eban ondo ikusten bere burua eta, esan barik, etxeratu egin zan. Zorionez, azkenean dana amaitu da ondo.

Idazkitxu au amaitu baiño len, azterketa txiki bat egin nai dot: Eleizkizuna ain aundikiro eginda ikus-tean, eleizeari buruz tamala somau dot barruan: Ai! Emen agertu dan fede bizia gure euskaldunen artean

biziago ba'lego! Eta ai! Eleizea erritar zeeakandik urrago eta apalago ba'lego. Eta ai! Gotzaiñak izandaten diranean eleizearen "erritarrak" geiago aukeratzaille edo kideko ba'litzaz! Eleiz-miña somatzen dot!

Eskerrak ba, Setien gotzain jaunari emon dauan irakatsi garbi eta sendoagaitik eta zoriona Uriarte Donosti'ko Gotzain barriari ardura barri au ain gogotsu artu dualako.

**OLAZAR'tar Martin'ek**

---

# "UNAI'ren AMA"

---

Alango izen polit bategaz ezagutu gendun Karakar edo Kar-Kar'eko andra jator au, "UNAI'ren AMA". Izen orregaz ezagutzen dalako erri ortan emakume bioztu au.

Urbiola'tar Mari Karmen, 33 urteko andra gazte-bat da, eta bere senarra Roldan'tar Prantzizko 36 urtekoa, Karakarre edo Kar-Kar, mendi txiki baten ganean, batu-batua dan erritxoan bizi diranak. Milla ta bosteun biztanle edo erri-lagun dira, nekaritzako lanetik bizi diranak.

Iparraldetik eta 18 kilometrura Lerin'go erriak mugatzen dau; Ego aldetik, Ebro ibaiak eta Ego-sartaldetik 17 kilometru'ra San Adrian'ek; Mendebal edo Sartaldetik Andosilla; eta Sortalde edo Eguzki-aldetik Sartaguda, sei kilometru gorago Lodosa, emendik Karakarre'ra 13 Kilometru dagozala, inguratzen dabe.

Erriko andra bateri galdetu geuntson ia non bizi zan Unairen Ama, eta bere etxeraino lagundu euskun.

Urten eban Mari Karmen'ek eta onartuak izan giñan aurkezpen ostetik.

Mari Karmen'en aita agertu jakun, eta sukaldeko gelan, Unai jolasten dabillega, solas-mintzaldi bide batez Latxaga galdezka asi jakon Mari Karmen'eri:

– Zenbat aur asi dira Euskeraz ikasten?

– Leenengoetan 30 aurren izena eman zuten, gaur 39 dira. Iru urtetik zortzi urteraino, 3'garren ikastaroa amaitu arte; or amaitzen dalako legebidea Lat-erriko eskolatan.

– Nolako eredia eta zenbat izkuntza ikasten dabez aurrak?

– A eredia daukaguna da, ordu bat Ingleses eta iru Euskeraz ikasten dabe abestuz.

– Pozik zaudete gurasoak aunaren ikasketakaz, eta nolako fruituak ikusten dituzue?

– Oso pozik gagoz ematen dauskun fruituaz, aurrak argiago, alai eta arduratsu agertzen diralako.

– Noztik daukazu Euskera'ren zaletasun ori, eta zergaitik?

– Umeetatik maite dut Euskera. Iruña'n, bai Donosti'n daukada-zan senideak Euskeraz dakitenak diralako, ez gara Euskaldunak ba?

– Eta zure Euskera?

– Zori txarrez, ez dot euki aukera gutxi baño; baiña gaztetan iru urtean ibili nintzan ikasten, eta 17 urtegaz, Iruñean eder-sentzurako (esteticien) ikasten ibili nintzanean Euskeragaz be zeozer arduratu nintzan.

– Erri ontan Euskerazko ikastarorik bai?

– Ama-zortzi urte dirala ama-bost gazte inguru, nire senarra artean dala asi ziran Otxoa irakaslea-gaz Euskera ikasten, baiña zori txarrez ez eben iraun.

– Euskaldun baten-bat bai Karakarren?

– Preziado'tar Joxe Luis da Euskaldun dan bakarra, berak Bartzelonan ikasi eban, eta Lodosa'n eta Kar-Kar' en irakasten ibili zan.

– Dantza talderik bai?

– Lodosa'ko dantza taldera joaten dira gazteak, ango ikastolako "MUZKAIA" izendatzen danakin arreman estuak eukinda.

– Arazo aundirik euki zenduen Euskera eskolara sartzeko?

Emen, Mari Karmen'en aitak berba eban esateko:

– Ai-ama!, andra gazte batzuk batzartu ziran, eta ikaragarritzko txingarkadak urte eban andik.

Mari Karmen'ek esan eban:

– Euskara, ez dogu gura politika arloan sartu daiten, eurak diralako naikoa politikan sartzeko.

Batzuk, ez eben gura iñondik iñora be Euskera eskolan ikasi daiten, eta matraka aundia sortu zan.

Berez edo beartuta, nire eritxiak ez ziran onartuak izan eta balekite ulertuak be, baiña etxeriketxe joan nintzan Euskal-ikastarorako aurra'ren izenak artzen, eta 30 lortu nebazan.

Eskolako zuzendariak lagundu eustan, guraso guztieri batzar batera deituaz.

– Eta ori noiz izan zan?

– 1999'ko Apiril-Lorail artean. Gaiñera, guraso batzuk Iruñara joan giñan, Euskeraren arloko legeak zeintzuk ziran ezagutzeko, eta andik urrutiko idatzgailu bitartez (Fax) mezuak bigaltzen gen-



duzan, batzarrak legearen ezaguntza euki dagian, arazoak bastartzeko eta arrazoa argitzeko. Izenak emoteko askeneko eguna zan edo epemuga legearen esanetan, lortu gendun guzti au. Karakarreko amak zoriontsu gaude, aurrak pozik joaten diralako Euskaraz ikasten.

Benetan bear dogula lekuren batetik ardurazko laguntza apur-bat.

Latxagak, itaundu eutson Mari Karmen'eri, ia nun kokatzen zan eskola, eta beren aita bigaldu eban gure laguntzera. Argazki batzuk atara genduzan agurtuaz batera.

Eskoletara eldu giñanean, Mari Karmen'en aita agurtu gendun eta itaundu gendun euskerazko andereño-maizu gaitik. Bereala agertu jakun Kalbillo eta Arteaga'tar Joxe Antonio. Onek, eskertuaz ara joategaitik, zuzendariaren-gana eroan ginduzan baimena eskatzera. Munarriz'tar Pili, Atarrabian bizi dana nai jaiotzez Iruñakoa izan-da bera. Andereño-zuzendari onek, ate guztiak zabaldu ebazan bear gendun guztirako, eta gure serbitzura geratu zan. Gu, kazetari-lez egin gendun aurkezpena, Diario de Nabarra'rako Latxaga eta ni ZER'en argitaratzeko.

Aurraren argazkia atara orduko denbora euki gendula ta, Kalbillo eta Arteaga'tar Joxe Antonio'ri Latxagak izketaldi labur-bat egin eutson:

- Nun jaio zinan?
- Ordizian jaio nintzan 1973'an abustu'ko 29'an, gaur Beasain'en bizi gara.
- Nun ikasi zendun?
- Donostian, majisteritzako eskolan.
- Etxean Euskaraz egiten dozue, eta zaletasunik bai?

- Bai!, ama izan ezik, eta zaletasuna txiki-txikitatik jatorku. Etxeko gizabarrena Euskalduna da!

- Nola zaude Nafarroan?

- Oso atsegintsu aurkitzen naz. Gaiñera, aurrak oso pozik artu naute, eta orrek bakarrik asko esangura dau!

- Noztik daukazu Euskeragaitik maitasun ori?

- Senideak dira zaletasun aundikoak, eta nik Euskera txiki-txikitatik maite dot.

- Nafarroan, Euskera nola ikusten dozu?

- Apurka-apurka aurrera doiala, eta leku guztietan asi dala sartzen, izenetan, iragarkietan eta abar. Lerin'en, Euskerazko jolas-jai bat antolatzen asi dira, Euskeraz ikasten dabilzan umeentzat, goizeko 8'retatik egun-erdiko ordubatetaraino. Aurrak, oso pozik dagoz jolas-jai orren itxaropenean.

Argazkiak atara ostean, danak agurtu genduzan. Los Arkos'eko bidea artuta, Rafa'ri eta bere emazteari, Latxagak argitaratu eban "NAFARROA EUSKAL ARROBIA"ren ariñago agindutako liburua emoteko, eta beraz, Kar-Kar'eko barriak esanaz. Rafa'ri, tximista baten antzera biotz-biotzetik irten eutson emazteari esanaz: "BAINA GU ZETAN GABILTZ! !".

Badakit-bai!, Los Arkos'en ere, laster izango dala alako barri on bat. Baina ikusten dogun-lez, laguntza apur-bat geiago bear dabe ainbatetik, Nafarroako erribera guztian Euskerazko bidea ezarri daiten, gure Euskal-etxearen giza-barrena osatuaz, Euskal-seneko berezitasunean agertu gaitez.

OR! NAFARROA BERE NORTASUNAREN BILLA.

**ATUTXA'tar PAUL**

ZORNOTZAN 2.000'ko EPA-ILLA'ren I O' an

## ABEND-IZTI'aren ERAKUSKETA ARTETA ERRIAN

Laxaga Jaunak esan eustan, Nafarroan dan Arteta errira, Ullibarrena'tar Joxe ikustera joan-bear gendula idatz-lan bat egiteko; berak "Diario de Nabarra"n argitarateko, eta nik ZER'en. Emen daukazu, gure ardurazko ekintza, gozatu dagizun.

Arteta erri-txiki polit-bat da, Aundimendi-pean, 011o ibarrean kokatuta dagoana. Iparraldetik: Treku'en mendi-kateak eta San Esteban baselizak mugatuta; Egoaldetik: Arteta mendatea eta 011o ibaia; Mendebal edo Sartaldetik, 011o, Lizarbe, Saldise eta Ultzurrun erritxoak; eta Sortalde edo Eguzki-aldetik, Txargain mendiak eta Goñi erritxoak inguratzen dabe.

Eldu giñanean, ots-dei bat egin gendun, eta barrutik aupa-ots bategaz erantzun eban Joxe'k.

Kanpoan eta etxe-bar'uko tresneri guztiak erakutsi-ostean. Laxaga bere zerrendatik itanduten asi jakon:

—Izen-abizenak eta noz jaiō zintzan?:

—Ullibarrena eta Arellano tar Joxe, 1925' n urtean jaiotakua naiz!

—Non egin zenduzan ikasketak?

—Anai-arteke guda aurrera joiala, 12 urtekoa, Iruñara joan nintzan, Udalak euki eban

nintzan, eta bost urte geroago gorputz-irudiak (esculturas) eta tresneri zaarrak erosten alegindu nintzan. 25 urtekoa Paris'era joan nintzan, arte-ederrak lau urtetan ikastera.

—Zenbat tresneri-zaar eukiko dozuz gaur bertan?

—15.600'en bat!

Zertarako erosi zendun ainbeste?:

—Euskal astarnen billa ibili nintzalako!

Zein da daukazun tresnarik zaarrena?:

Txakur antzeko arri bat, ainbat milla-mende daukazena. Erze'n. Arnedillo eta Arnedo ren erdian kokatuta dauan errian aurkitu neban; eta burdinezkoetan, lurra-lantzeko tresna zaar bat, erromatarrak agertu aurrekoa, millaka urteak daukazana. 2.000 pezeta ordaindu neban beragaitik, 27 urte neukazala.

—Euskera landu-zendun?:

Bai!, 1956'an Estornes Lasa'tar Joxe'rekin ibili nintzan, eta orduan konturatu be, Euskal-Izkuntzan nolako nortasuna dauken Euskalerrian daukaguzan abereak.

Zein da zurentzat abestirik ederrena?:

—"Coplas de Monte Agudo".

—Baiña ori erderaz da!

—Gu gera ala ez gera? Gera!! eta kitto! !

—Norentzat izango da daukazun tresneri guztia?:

— "Nafarroako Don Pedro Mariskala iraspene rako (fundación) izango dira zati batzuk, eta besteekin, semeak jakingo dau zer egin.

Erakusketarik egin dozu?:

—Bai!, Donostin egin neban 1969'an, eta egin neban zabalkunde motagaitik, iru egunerako espetxeratua izan nintzan. Gazteiz'en be egin nuen 1972'an, "Casa del Cordon" deritxonean eta debekatua izan zan.

—Nor da zurentzat Naparrrik ospatsuenetarikoa bat?:

—Niretzat, Euskal-Basarretxeok..., bardiñ-bardiñak gara (ez dau esan-gura flor). Euskarok, danok bardiñak gara, lengo-lez! Euskarok bai!! baskoz no!!

Bere erantzun bizi-bizia izan-zan au.

—Zein jazokizun izan da Euskalerrian zuretzat aipagarriena azkeneko denboretan?:

—Euskalerrian, asko izan dira aipagarriak, baiña niretzat Nafarroan "Gamazada".

—Gaztedi artean zer ikusten dozu?:

Gazteak jatorrak dira!, baiña diruak zapalduta.

—Zergaitik erosi zendun etxe-au?:

"Zortzi zuta-be daukazelako orma-nagusi barik".

Erri ontan Euskara noz galdu da?:

1951'ean il-zan azkeneko Euskalduna. Baiña..... Bizkaitarrak, Giputzak, Arabarrak, Nafarrak, Benafarrak, Laburdiko eta Zuberoarrak ez gara?, ba gera!, Euskarok gera eta kitto! !

Berriz ere, bere biotzaren erantzun zuzena.

Itaun eta solaseko mintzaldi ostean, ainbat zabalkunde-orri emon euskun eta, batez be, berak argitaratutako liburu bat "Iruñako Erreñuaren abend-izti Erakusketa" Julibarrenak izenpetzen dauana.

Liburutxoa zabalduta, erakutsi euskun, zer esaten dauan Sanchez Albornoz'ek Euskara dala-ta: Gaztelar lurraldean, Bureba'ko Bibar'en ain zuzen, Euskaldunak izan zirela, eta Cid Campeador be Euskalduna izan zala.

Badaukagu bai, Euskalerrian zer ikusi eta gazteari zer irakatsi gure lurralde ontan, solaseko osteraldi alai bitarteekin, Euskal zaletasuna bizkortzeko eta giza-barrena osatzeko.

Arteta'ko Julibarrena'k, besoak zabalik eta pozik artuko ditu joaten diran guztiak.

2000' an otsailla'ren 14' an

ATUTXA'tar PAUL

ZORNOTZAN 2.000'ko OTSAILL'ren 18'an



# 1999 URTEKO EKINTZAK

Gabon Jaun-andreok:

Lengo millurteko azken urtea igaro da, beste barri bateri asiera emoteko, eta Batzar Nagusiaren garaian oikoa dan lez, igarotako urtearen gora-beerak azaltzea dagokit; augaitik ba, ekiodan dagokidan arloari.

## EUSKAL IKASTAROA

Igarotako Urrilla'n euskal ikastarorako izan-emotea asi eta oiko ikasleen kopuruaz ikasturtea asi zan, beti lez, adorerik andienaz gure izkuntza ederraren alorrean murgiltzeko. Ekintza onek beti lez poztasun andiz beteten gaitu.

## EUSKAL ASTEA

Betiko oitureari jarraituz igaz be Euskal Astea ospatu genduan, baiña oraingo onetan, Eskolapiotarren ikastetxean egin bearrean, Zornotza'ko Karmeldarren Ikastetxean izan zan. Azilla'ren 8'an asita, lau egun iraun eban. Ona emen, ospakizun onetan tartekoak izan ziranak:

Latiegi tar Bixente.

Zubiri tar Iñaki

Latxaga - Murua Jaunak

Atutxa'tar Paul.

Olazar'tar Martin

Emondako itzaldiak gure aldizkarian ZER'en agertuko dira. Emendik bioako gure eskerrik beroena Zornotza'ko Karmeldarren Ikastetxeari.

## IPUIN SARIKETA

Idazle barriak sortzeko, eta lengoak iraun dagien, urteko azken aldian Ipuin Sariketarako deia egin genduan, eta beti lez kopuru politik erantzun eban. Ona emen leiaketa orren sarien sailkapena:

1. Goikoetxea tar Iñaki
2. Merino tar Palmi
3. Legarreta tar Asier
4. Murua tar Jose Mari
5. Arrinda'tar Anes.

Sariak oneixek izan ziran: 50.000 - 40.000 - 30.000 - 20.000 eta 10.000 laurlekoak.

Saritutako ipuin orreik ZER gure aldizkarian agertuko dira.

## EGUTEGIA

Aspaldiko oitureari jarraituz, aurtengo egutegia atondu genduan. Argitaldi au Bizkai-Bilbao kutzaren

diru-laguntzaz izan da, eta oraindiño alerik artu ez dabenak, Kutxa orren idaztegiatan artu dagikie. Egutegi onen alkartze-lana Olazar'tar Martiñ'en ardurapean izan da.

## ZER ALDIZKARIA

Bizkaieraz agertzen dan aldizkari bakarra argitaratzen jarraitu dogu, eta ereti oneitan beti esaten dodana, aurtan be azaltzen jarraituko dot, eta auxe izan be: Gure bizkaiereak eriotzara galdua jarraitzen dau, erakundeen eta agintarien arduraez ziñisteziñak inguratuta. Eta abagune au ustiatuz, orain be nire didarra botaten dautset bizkaitarrai, curen euskerea il baiño len itxartu daitezen, eta danon artean berpiztuten aalegindu gaitezen, euskeraz jabetu diranen zitalkeriari aurre egiñez, eta gure asabandik artu dogun yarauntsiak gure biotz eta belarrrietan iraun dagian, orain arte egin dauan lez.

Eta barriro be esango dot, gure erakundeak "Euskerazaleak" iraun dagian arte, gure illerokoa argitaratuko dala, eta beti lez, Euzkadi'ko euskal erakundeen bizkaierarekiko jokaera kaltegarri ta ulerteziña salatuz jarraituko dau.

Eta barriro be, eskatuko dautsuet, aldizkaria zuzentzen dauan Olazar'tar Martiñ'eri zuen lanak bialdu dagiozuezala, orain arte lez.

## LAGUNTZAK

Eralguntzak etenbarik gora egiten dabe, eta zuen laguntza iñoizkorik bearrekoena da. Izan be, ekintza geiago egingo gendukez, bearreko dirua izatekotan, eta augaitik beti lez, zuen urteko saria bialtzeko gogoratzen dautsuet, BBK'ko Kutxa'ren gure kontu agirira izan be. Gogoratu egizue, zuen emoitzen eñean gure egitekoak izango dirala.

Amaitu baiño len, guretzat adoregarria dan barri bat emon gura dautsuet, eta auxe izan be: Bizkai'ko Foru Aldundiaren Kultur-sailla guri geiago laguntzeko gerturik dagoala azaldu da, eta onek badirudi gure etorkia itxaropenez argitzen dauala. Onezaz gaiñera, Bilbao'ko udaletik BBK Kutxatik, eta Eusko Jaurlaritzatik oiko laguntzak jaso doguz, eta asko ez izanik be, aurrera jarraitzeko lagundu dauskue.

Eta beste barik biotzez agurtzen zaitue.

**ZUBIRI'tar Iñaki**  
Lendakariak

---

N

# ERRIMINA TA ERRIGINTZA

---

## EMEN JAI OAK GARA

Geuk ez dogu aukeratu gure jaioterria. Ementxe agertu giñan mundu onetara sartzeko eta fededun garanok orretan Jaungoikoaren asmoak ikusten doguz.

Eta emen jaio giñalako, bizitzara begiak idegi genduzanean, giro euskalduna aurkitu gendun: Gure aitak eta amak ez ekien ezelako erderarik edo zerbait jakitekotan oso txarto egiten eben, aitak batez be, amak ezer be ez, amamak be ez. Eta anaiak ikasi egin bear izan dabe.

Aurkitu dogun giro onek barrumin bereizia sortu dau guban. Barrumin onek berezkotasuna dauka, aita eta ama maitatzea berez datorren lez, bardin geure ingurua, aberria maitatzea. Emen euskera entzuteak edo geure dantzak eta olakoak ikusteak poz bereizi bat emoten dausku, eta barru-min edo poz ori askoz aundiagoa biurtzen da urrin gagozeanean: Zelako poza Ameriketara edo beste edozein lekutan euskeraz egiten dauan bat aurkitzen doguanean edo iparraldean Maule'ra edo beste edozein erri euskaldunera joan eta an euskeraz egiten dauskunean. Bear ba'da ulertzea gatx egiten jaku, baiña anaitasunaren ezaugarria da eta poza emoten dausku. Zazpiak bat egiten gaitue euskereak eta beste bereizitasun guztiak.

Erbesteko izparlari batek itaun au egin eustan bein: Zeuek zergaitik maite dozue euskerea ta Euskalherria? Erantzun neutsan: Zure itaun orrek ez dauka erantzunik. Nik itauntzen ba'dautzut zure ama zergaitik maite dozun, ez zeunke emongo erantzun egokirik. Ori berezko gauzea da eta berezkoa dan neurrian sagradua, itzaltasuna bear dauana.

## ERASOAK

Nire euskaltasun onek beti izan ditu erasoak, beti ibilli dira nire inguruan euskaltasun au kendu-gurean. Zergaitik baiña?

Sei urte bete eta euskeraz baiño ez ekian etxetik urten nintzanean, erderazko eskola batera sartu nin-

duen, luburuak erderaz, irakaslea erdelduna.. Au erbestean esaten dogunean arritu egiten dira: Baiña zelan izan dateke ori? Zelan umeari irakatsi berak ez dakian izkuntzaz?

Gero, amaika urte bete nebazanean, urriñago joan bear izan neban ikasteko, Euskalherriaren barruan baiña etxetik urriñago: Amabi urte egin nebazan an ikasten eta sekula berbatxu bat ez euskuen euskeraz egin. Zergaitik eraso ori nire izakerearen aurka?

Eldu jakun lan egiteko ordua eta batera gure nor-tasuna ta askatasuna izateko sasoia be. Eta gure nagusiak alde batetik eta bestetik beti agertzen jakuzan gaztelerearen alde eta gure erri-miñaren aurka. Gure eldutasunak jokabide ori ezin izan eban onartu eta gogortasunik aundienaz abotsa jaso gendun jokabide orren aurka. Laster sortu zan eraso: Gudarostearen agintariak dei eginda epaikunde bat, erriko epailariak dei eginda beste epaikunde bat Durango'ko epaitegian eta eleizako arduradunak deituta beste epaikunde bat Eleizan. Ondorenak ez ziran ain garratzak, baiña bai illebeta espetxe-antzeko baten egin-bearra.

Eta nik ez neban nai besterik euskaldun lez bizi izatea eta bakean bizi izatea baiño. Zergaitik olako erasoak?

## BAKEGINTZAN

Irurogeigarren urte inguruan eta erri-maillan, agertu ziran euskaldun bizi-biziak, Euskalherria bere lekuan ipiñi gura ebenak. Pozik ikusi gendun olako jokabidea, baiña gauza batek kezkatu ginduzan: Ori lortzeko bide lez gogorkeria artzen ebela. Baita kezkarri jakun eurak nai eben Euskalherria Marx'en girokoa zala jakitea. Guk, geienok, ia danok, ezetza emon geuntsan, bai elburuari eta bai bideari. Baiña gauzeak aurrera egin eban gaur daukagun giro zakarra etorri arte. la zortzireun dira, tamalez, erri-eragin orrek erail dauzan erritarrak.

Oraintsu bakeak egiteko bideak eskiñi dira, batez be gogorkeri-zaleen aldetik. Baiña Euskalherriaren arerioak ez dabe nai bakerik.

Non gagoz gu euskaldun zeiak, euskaldunak garalako beti eraso izan dogunok? Ba, guk antxiña egiten gendun eskaria bera egiten dogu orain be: Euskaldunoi itzi dagiskuela euskaldunak izaten. Ba-dakigu gure artean kanpotik etorriak dagozala. Ez daukagu ezer euren aurka, baiña bai eskatzen dautsegu eurak be guk maite dogun erria Euskalerrria, maitatu dagiela. Iparraldean eta Egoaldean, zazpi lurraldetan bizi garan euskaldunak alkartuta bizi izateko eta aurrera egiteko bidea jarraitu dagiela. Orrelan izan ezkerro, ba-dakigu euskaldunak ainbeste tokitan onartuak izan garana eta geuk be gure artera datozenak onartzen doguz: bakean bizi nai dogu.

Zer eskatzen dogun euskaldunok bakea egiteko?

1º: Zazpi lurraldeetan bizi dan Euskalerrria aintzat artu eta bere aurrerapena indartu, bai España'ren eta bai Frantzia'ren aldetik. Ori alderdi guztiak onartu bear daben gauzea da. Ori erriaren eskubidea da. Zazpiak bat.

2n. Orrelan erria bat egin ondoren, erria bera sartuko da politikara edo jaurketara eta berak nai dauan bidea artuko dau autarkien bidez: Orain lez, autonomiak, edo askatasun osoa zazpiak bat orren bidez, edo lurralde bakoitxa laterri bat besteakaz alkartuta edo... erriak nai dauana.

Ori litzake benetako erri-jaurketa edo demokrazia, ori litzake benetako bakea egiteko bidea.

Zergaitik ez dabe nai ori Frantzia'k eta España'k? Ez ete gara ba, azken baten, Europa batu baten alkartuko? Ez dira ba, izango, gero be alkar-lana egiteko

bideak? Beti egin izan dogu edestian alkarlan ori eta aurrerantzean be egingo dogu.

Baiña bide zuzen au artu baiño lenago eztabaidak eta ilketak izan bear dabe! Zergaitik? Gogoratu ikurriña bere lekuan ipinteko zelako alegiñak egin ziran, zenbatek bizia galdu eben. Zelan esan eban batek ikurriña legezatzeko bere gorpuaren gaiñetik igaro-bearra izango zala. Ez zan izan gorpu orren gaiñetik igaro-bearrik, legezatu zan eta ez da jazo ezer. Euskalerrriari askatasuna emoten ba'jako be, antzera, bakea lortu al izango da eta aurrera jarraituko dogu. Ez begi iñok izan bildurrik!

**OLAZAR'tar Martin'ek**

=>=<    =>=<    =>=<

## **ZER ALDIZKARIA**

**Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (3.000 pezeta) kontu onetan:**

**EUSKERAZALEAK**

**BILBAO BIZKAIA KUTXA**

**Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5**

**Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!**

**Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan BBK'ra eta ordaindu 3.000 pezeta. Ez dozu ezer be idatzi bear.**

**Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.**

**Eskerrik asko!**

---

---

# ON FERNANDO SEBASTIAN, IRUÑA'KO GOIGOTZAIARI ERASPEN GUZTIZ ETA BEGIRUNIK AUNDIENAZ<sup>1</sup>

---

---

Irakurri dot, On Fernando, atzo otsaillak 9, datozen auteskundeei-buruz, "Deia" izparringian argitaratu zenduan idazlana. Eta gaur bertan —otsaillak 10— nai dautsut erantzun. Apalki, baiñan leialki. Gotzaiak losintxatzea ez bait da zuzenki jokatzea.

Samiñez esaten dautsut, zure aburu guztiakin bat ez natorrela. Esan dozuz gauza ederrak. Baita, nere ustez ain ederrak ez diranak ere.

Autarkia (botoa) era zintzoan emateko, onako iru puntuok aipatzen daskuzuz bearrezkoak bezala:

—Zuzenean edo zearka terrorismoari laguntzen dautsenei aurtaki-ematea ez dala zillegi.

Autarkia, terrorismoaren aurka, argien eta egokien jokatzan dabenei eman bear yakela.

— Autarkia ematerakoan, Naparroa ren eta Españi'ren onturrea billatu bear dogula.

(Zure itzak gazteleratik ondo euskeratu dodazala uste dot, On Sebastian. Nai neuke beintzat; garrantzi aundikoak bait dire neretzat zure itz oiek).

Badakit esan dozuna borondaterik santuenaz esan dozula, baiñan ez dot uste egoki esana izan danik. Ez da zure kulpa.

Euskalerrri'ko gotzaia zara, baiñan Euskalerrriko izpiriturik ez dozu. Ez da Zure kulpa.

Badozu Euskalerrria-baitan jurusdikzioa, baiñan zure-baitan ez dozu Euskalerrriaren oarmenik. Ez da zure kulpa.

Orregaitik, zure eskutitz orrek Iruña bateko gotzaiaren eskutitza baiño geiago dirudi edozein Guadalajara bateko gotzai baten eskutitza. Edozein Guadalajara'n jendeak egunero izparringietan irakurri ta irrati ta telebistaz entzuten dabezan gauza berberak esaten bait dozuz.

Oridalata, Euskalerritik at, bai, mundu guzia izango dozu zurekin bat. Eta txalorik asko jaso aal izango dozu.

Baiña Euskalerrian —eta zure Naparroa'n— ez dozu orrelako batasunik lortuko. Beste era batekoa bait da zure artaldea, eta mota ezberdin askokoak bertan bizi diran zure ardiak.

Alde izango dozuz, zure ezkutitz ori pozik izenpetuko leukeen Aznar, Mayor Oreja eta Sanz'en atzetik dabilzanak; ez aiñ aldekoak Arzalluz, Garaikoetxea ta Otegi'ri jarraitzen dautseenak.

Españi aipatu bait dozu, eta, Naparro'an, gaur, Españi aipatzea Euzkadi aipatzea bezin arriskutsua bait da. Eta, On Sebastian, zure artalde ortan danak izaki zure ardiak!: Españizaleak eta Euzkadizaleak!

Gaiñera, ez da ain zarra Naparroa'ko Jaurlaritzak berak egin eban ikerketa (enkuesta) bat. Ikerketa ortako galdera bat au zan: "Zu zer zara bereiziki, Española? ala Naparra? Ta geiengo aundiz, jenderik geienak, "ni? naparra!", erantzun eban. Orrek ere zerbait esan naiko dau noski, On Sebastian.

— Terrorismoari dagokionez, ia zure ardi guztiak egingo dabe zurekin bat. Ez da ba zillegi Terrorismoaren aldekoie autarkirik emotea. Baiñan, auek ere, On Sebastian, ardi galduak, bai, baiñan zure ardiak dozuz; igesegindako semeak, bai, baiñan zure semeak.

—Danok oartu gara —eta danak oartuko dira— zuk zure idazlan ortan ain maitetsu aipatu dozuzan "terrorismoaren-aurka egoki lan egiten daben" oiek nor izan dai-tekezen. Baiña, erarik mixeablenean urte t' erdi Euskalerrriarentzako pakegintza-lanean apalperrik galdu dabeta, zu Profeta ere bazalararik, zure itz bat edo bi —Profetaren itzak— merezi ebezala uste dabena bat baiño geiago gaituzu zure Euskalerrri ontan, eta, baita, zure Naparroan bertan ere.

Baiña ez dozu ezer esan.

**LATIEGI'tar Bixente**

---

<sup>1</sup> Nere eskutitz au Iruña'ko "Diario de Navarra"n izan da argitaratua. Bizkai'ko euskal-irakurlentzat ere jakingarria izango dalako ustez argitaratzen dot "zer"en, egiazko Bizkaieraz argitaratzen dan aldizkari bakarrean. Naparrerako aditza Bizkaierara biurtu besterik ez dot egin.

# EUSKEREAA TA ASMALARITZA

## 2.000'KO OTSAILA'REN 21'AN GINTZA-ASMALARIEN ALKARGOAN

### ZUBIRI'TAR IÑAKI'K EMONDAKO ITZALDIA

Nire lagun ona dan Bizente Endeiza'k, alkargo onetako Euskal Kulturaren Arduradunak, lengo baten etxe onetan itzaldi bat emon neugian eskatu eustan. eta pozik izan be, eskakizuna onartu neutsan. Gaia nire aukerakoa izango litzake, au da, askatasun osoa izango neuke nire burubideak adierazoteko, eta auxe izan zan autatu neban mintzagaia:

#### EUSKEREAA TA GINTZA-ASMALARITZA

Itzaldia, ain txokoratua ta ezetsia dan gure bizkaieraz izango litzake. eta gaia. asmalariok teknikaren aldetik erabilli bear dogun iztegia. Jakiña, gai au oso zabala dan ezkeru, nire eritxi edo iruzkiñak iraztekoak izango litzakez, oiñarrizko aran batzuk soillik ukutuz. Eta sarbide antzera au esanda, noakion nire itzaldiko mamiña garatzera.

Orain ogei ta bi urte gitxi gora-beera. erakunde onetako batzar baten, elkargo onen euskal izenari buruz batzar bat ospatzeko zan, eta onen aurretik, lendakariari nire ikuspegiak bialdu neutsazan.

#### ASOCIACION DE INGENIEROS INDUSTRIALES DE VIZCAYA

Euskeraz esateko, orduko batzordeak auxe eskeintzen eban:

#### BIZKAIKO INDUSTRI INGENIAREN ELKARTEA

Nire idazkian zapuzten neban gogor, eskeiñitako izendapena, euskeraren aurkakoa zalako eta onetaraxe azaltzen neutsan nire burubidea:

Industri ez da euskal itza. Berba au adierazoteko, I.936 urtean sortutako Eusko Jaurlaritzak, "Gintza" euskal berba jatorra erabiltzen eban, eta gaiñera edozeiñek ulertu egikeana zan.

"INGENIARI" itza erdal utsa da baita be. Alkargoaren lendakariari igorritako idazkian, gure langintzaren bereiztasuna, sortzea edo asmatzea dala onartzen ba'dogu, neuk "ASMALARI" itz jatorra aurkezten neban. Beraz, nik izendapen auxe eskeintzen neutsan,

#### BIZKAI'KO GINTZA - ASMALARIEN ELKARGOAA

Nire burubideak, baiña, utsera jo eban, eta erderakadak jaun eta jabe billakatu dira. Gero ikusi dot ELKARGO OFIZIALA eratsi dabela. Ez litzakean askozaz benetakoa izango, LEGEZKO ELKARGOAA ipiñi...?

Gaur egun, au da leku guztietan ikusi daiteken euskerarekiko kaltea. Euskal itz jator asko ta errazak doguz, baiña arein ordez amaika erderakada ganorabakoak darabilguz. gure euskerea askotan alperriko erdalikeri biurtuz. Izan gaitezen euskera jator eta garbiaren maitaleak, eta gure berbeteta zitaldu bearrean gorraldu dagiun.

Alor onetan. baiña, ez gaitezen zorrotzegiak izan, au da, ertzekoegiak (extremistas). Gure euskereak guztien maitasuna ta ardurea bear dauz. eta oroz gain jokatu dagiun zentzunez, euskerea kultur-maillara biurtu nai ba'dogu. Ez dagiun geiegikeriz erabilli, oraindiño auskorra dalako. Geisorik dagoan izkuntzaren antzera erabilli dagiun, baiña oroz gaiñetik maitasunez eta ardurarik andienaz.

Nik. euskerara itzultzeko. oiñarri oneik eskeiñiko neuskizuez:  
I. Euskal itz ezaguna dagoanean. orixe erabilli.

2. Zure euskalkian itzik ez ba'litz, baiña bai ingurukoetan, oneik artu.

3. Iñongo euskeraz ori adierazoteko itzik ez ba'lego, asmatu egizu. euskerearen legeari jarraituz.

4. Edozelan be, ori zaila gertatuko ba'litz, orduan erderatik artu, euskal itxura emonez.

5. Beti eskura erabilli Azkue'ren eta Plazido Mujika'ren iztegiak.

Eta orain ikusi dagiun zelau esan geinken asmalaritzari dagoikiozan itzen zerrenda bat.

Asi baiño len esan bear dautsuet, doitxerak eta euskerak egituraz antz andia dabela, eta on litzakigu askotan doitxeraren gaitasuna ezagutzen teknika itzak sortzeko. Eta au esanda, ekiogun nire ustez asmalariok zelau sortu dagikegun bearreko iztegi bat. Jakiña. oraingo saio au ezin daiteke zabala izan, baiña eredutzat artu daiteke.

Abrazadera = Bezarki; Abrasión = Igaketa; Acanalar = Ozkatu; Acelerar = Ariñagotu; Adaptar = Doitu; Alinear = Lerrotu; Línea recta = Zuzenki; Altavoz = Ozenkin; Anemómetro = Aize-neurkin; Angulo = Txoko; Apisonadora = Alper: Ariete = Ariburu; Atornillar = Biurritu; Bosquejo - Marrakzi arin: Cable = Unama; Funicular = Unamagurdi; Cabele eléctrico = Tximist-unama; Capacidad = Kokamen: Central eléctrica = Tximist-indartegi; Centrifugo = Kanporakoi; Centrípeto = Barrurakoi; Cojinete de agujas = Orratz-irristikin; Cojinete de anillos = Erestun-irristikin; Cojinete de bolas = Pirla-irristikin; Convexo = konkor; Cóncavo = Sakon; Crisol = Arrago; Curva = Okerki; Descarrilar = Bidegaldu; Destilar = Lurrindu; Condensar = Urtu; Desatornillar = Biurrigabetu; Diámetro = Kaizu; Dinámica = Indarritzi; Elástico = Lenerakor; Enbolo = Txinbo; Enchufe = Giltz; Enchufe eléctrico = Tximist-giltz; Engranar = Ozkatu; Estandarizar = Arautu; Filtrar = Irazi; Flexible = Malgu; Gravitación = erakar-indar; Hidráulica = Ur-izti; Inducir = Eragin; Inflar = Puztu; Infrarrojo = Gorri azpiko; Interruptor = Etenkin; Inyectar = Ziztatu; Laboratorio = Saiotegi; Laminar = letzi; Lima = Karraka; Lingote = Tortxo; Lanta = Ugal; Magnetismo = Otantza; Magnetizar = Otandu; Maleable = Iezkoi; Manómetro = Zapaneurkin; Mineral = Meazgai; Obtuso = Kamuts; Octógono = Zortzizoko; Oleoducto = Oriobide; Optica = Argizti; Orbita = Ibilte-une; Pararrayos = Tximist-orratz; Perno = Ziri; Perpendicular = Zutiko; Piloto = Erabillari; Polarizar = Erakarri; Polea = Txirrita; Ranura = Ozka; Rebarba = Bizarki; Recuperar = Leneratu; Refractario = Su-aurkako; Saturar = Asetu; Supersónico = Ots-gaiñeko; Torno = Bilgin; Transformador = Tximist-aldatzaille;

Orain ikusi dagiun doitxerari itxuratuz zelau sortu dagikeguzan itz barriak.

Gaztelera	Doitxeraz	Euskeraz
Alternador	Wechselstrommaschine	Tximist-aldakin
Aerodinámico	Fortschrittlich	Jarraikorra
Caloría	Warminheit	Bero-batasun
Cortocircuito	Kurzschluss	Bidelabur
Cremallera	Zahntrieb	Ortz-eragille
Resonancia	Widerhallend	Aitzi-ots
Sedimento	<small>Übersicht</small>	Azpi-ondakin
Sinóptico	Übersichtlich	Oro-ikuspen
Nonio	Wielseitig	Alde-askodun
Radar	Funkmessverfahren	Irrati-azterkin

Ekiogun orain eskerearen egoerari.

Euskaltzaindia, edo euskeren gure akademia, euskal aldundien eragintzaz I.919 urtean sortu zan. Aren lenengotariko arazoa idazkeraren legeak oiñarritzea izan zan, eta abo batez Arana Goiri'k sortutako idaz-legeetan jarri izan zan. Arrezkero, ez genduan iñongo eztabaidarik idazkerari buruz, eta berrogeitak urteetan zear. idazkera erraz eta zentzudun orretan, gure euskera bideak ildokatzen asi zan. Jakiña, iparreko euskalkiek H'a oguzten edo aboskatzen ebenek izki ori erabilten jarraitu eben, euskaldun guztien begirunez, ots bakoitzari ikur bat egokitu bear yakon legeari jarraituz.

I.936'eko matxinadearen ostean etorri yakun zapalkuntzearen ondorioz, gure Euskaltzaindia biziera larri ta illuna jasaten asi zan, Azkue aztu-eziñaren lendakaritzapean. Eta bera bakarrik, lagun bakan batzuen laguntzaz, esaterako Nazario Oleaga'renaz aal eben lez eskerearen eusletzat jarraitu eben. Abade jakintsu onen alde esan dagikeguna beti labor geratuko da, euskerearen alde berak egindakoa erraldoi baten aalegiña izan zalako.

I.960 inguruko urteetan, Euskaltzaindiaren inguruan bide "aurrerakoiak" zabaldu bide ziran, euskerearen batasuna eskatzen ebela. eta batasun ori lortzeko, Axular'en "Gero" liburua eredu-tzat ipinten zala. Aita Villasante zan orduko Euskaltzaindiaren lendakaria. Nik ez dot ezbaian ipiñiko Axular'en goratsuna, baiña benetan esan bear dot, latiñean murgildutako aldi areitako abadearen euskerea erderakadaz beterik egoala, eta argi agertzen da berak erabillitako jostakera latiñean oiñarritzen zala. Aita Villasante'k eta bere inguruko "aun'erakoi" batzuk, "Gero" odeietaraiño goratuz, onen euskerea eredutatz jarri eben, eta "Batasunaren Kutxa" idororik, Benabarra'ko abadearen euskerea "El Batua"ren oiñarrizat eskeiñi euskuen, eta %92 euskaldunek oguzten ez daben H'z gure iskuntza bete eben. Nik ez dakit "El Batua"ren H'rekiko maiztasuna, baiña gazteleraren 5 bidar geiago agertzen dala baietz esango neuke.

Eta gitxi bai'litzan, ain jatorrak diran%90 euskaldunen arteko ñ ta II kendu bear zirala erabagi eben euskeraz jabetu ziran jakintzuek, eta iparreko euskalkietan erabilten ez diran ñ ta II, bein betiko Euzkadi osoan kentzea erabagi eben, eta olan, "Mutilla-mutilla" "Otsailla-Otsailla" "Ibilli-ibili" "Eragille-eragile" "Okillas-okilaso" "Oillo-oilo" "Oillar-oilar" "Illun-ilun" etabar idazten beartu ginduezan. N'ri buruzkoa ona emen eredu batzuk: "Baiña-baina" "Oraiña-oraina" "Eziña-ezina" "Ugiña-ugina" "Argiña-argina" "Okiña-okina" etabar.

Asiera baten H'ren burubagekeria "begi onez" erabilli bearko zala esaten eben, baiña bai zera...! Neurritasun izun au bortxakeri zentzunbakoa biurtu zan, eta kontuz...! H ganorabako ori eurok agindutako lekuan ea maiztasunez erabilten ez ba'dozu, zureak egin dau. Ez uste, iñongo euskal leiaketan H zentzunbako ori jarri nai ez ba'dozu, saririk lortzeko eskubiderik izango dozunik. Zure lana irakurri barik saskira botako dabe.

Eta au gitxi bai'litzan. Arana Goiri'k berak sortutako alderdiak bere maisuaren irakaspen argiak zaramara bota. eta oraingo bidegabekeria adorerik andienaz aldatu da... Negar egitekoa da, baiña beste alderdiak be, Eusko Alkartasunak esaterako bide ori artu dau. eta zelan ez, iraultzaren eredu bizia dan Herri Batasunak be, sutsu onartu dau gure izkuntzarekiko ergelkeri esan-ezin ori. Batua alorreatan ez dozu euskera onik aurkituko, baiña onetan peitzen yakona, H'ak aseteraiño eskeiñiko dautsuez. Azkenean, gure izkuntzaren basakeri ori ikustean, norberak uste bear dau, alperriko H ori politikerez ikurtzat artu izan dala. Nola billakatu da euskaldunen zentzun argia...?

Eta orrezaz gaiñera, euskeraz jabetu diranak gure bizkaiera ederra ta aberatsa eriotzera galdu dabe, eta orren orde euskal mordoillo bat jarri dauke. Askotan, ainbeste erderakadaz eta jostakera txarraz beteriko asmakeri ori, latinkeri barri bat sortu ez ete daben, gure buruari itauntzen dautsagu. Ona emen adibidez, parrastaka erabilten dabean eredu batzuk: "nazonala" "espero" "gonbidatu" "independentzia" "frogatu" "bulego" "greba" "esko-

la publikoa" "orquestra sinfonikoa" "abantaila" "Unibertsitatea" "aireportua" etabar. Ez uste, au geiegikeria danik, oneitariko erderakadaz gure bazterrak eta erri-crakundeak josita ikusi daitezke. Eta erdalkeri onein aurka zeozer esan bearko leukienak, ixil eta mutuak jarraitzen dabe curen Olinpo'ko pakean eta anditasunean.

Eta ainbeste bidebagekeriaren aurka, gure Bizkaierak eriotzera galduta jarraitzen dau, ez dakigu noizarte. Gure mintegiak diran ikastoletatik baztertua da minbizi bat bai'litzan. bizirik jarraitzeko eskubidea ukatuta. Eurok, euskeraz jabetu diranak, ez dabela ezer egiten Euskalkiri janaria ukatzea eraiketa bat da, eta orixe da bizkaiereaz urteetan zear egiten diarduena. Bizkai'ko gure berbeta ederra ta aberatsak gosez ilten jarraitzen dau, eta etenbarik gure didarrak jaurti arren be, basamortuan aldarrikatuak bai'litzazan gertatzen dira. Gaur egun, gure errialdeko baserriarrek eta ikastola baten azten diran neska-mutikoez ez dabe alkar-ulertzirik, eta geienetan erderara jotzen dabe. Lengo aldietan euskal umeak nai-ta-ez erderaz azten ziran, eta noizbait gure izkuntzaren etorkia gure eskuetan dagoanean. bizkaitarren diruak gurea ez dan mordoillokeri bat ikastera beartuak dira. Barriro be esan bear dogu, euskerearen erabiltea negar egiteko dala.

Uste dozue, baiña, Bizkai'ko gure agintariak eta erakundeak itxartuten diranik...? Bai zera...! Ez dozue besterik, gure Foru Aldundiaren eta Udalen mezu-bideak aztertu baiño, ulertzen ez dogun izkuntzakeri batez itz egiten dauskuela ikusteko. Jakiña, H asko erabilliko dabe. eta jakiñaren gaiñean izateko, erderara jo egin bearko dogu. Bai. diru asko ta aalegin andiak alperrik galduta, gure euskeraren ondapenerako.

Eta gaur, itzaldi onek damostan abagunea ustiatuz, zuej gintza-asmalariak didar bat jaurtiten dautsuet, aalmen guztiak ipiñi dagizuezan gure euskera eriotzetik atarateko.

Arbasoakandik arri-arotik garatu zan izkuntz bardinbage bat yarauntsi dogu, eta eurakanako saldukeria izango litzake, eta gaurko euskaldunentzat galpen neurribakoa, eunurteetan zear eta eragozpen guztien aurka iraundako gure arimaren zati orreri uko egingo ba'geunskio. Bizkaieraz elerti eder bat itz leunetan eta olerkitan zabaldu da; ez dot aren egillien izenik aipatuko, lan labor onetan orretarako lekuri ez dago-ta, baiña zuek gogoan izango dozue ainbat eta ainbat idazle ta olerkari.

Eta euskaldun guztien artean gure izkuntza edertu ta zabaldu bear dogunean, euskera maite ta eder bat euskera, guretariko euskalki bat eriotzera galtzea ergelkeri parkaeziña da. Gure bizkaiera ederra bere baitan aberastasun andikoa da garatu bear dogun Euzkadi'ko mintzaira zabaltzeko ta edertzeko, eta egunen baten euskera orokor bat guztien artean sortzeko.

Barriro be badiñotsuet, zuek. Bizkai'ko gintza-asmalariok. gizartean mailla goren bat dozue-ta, aalegin guztiakaz saiatu zaittezela, orretarko nor bazarie-ta, bizkaieraren eriotzaren aurka esi bat ipinteko, eta dagokion maillara eroateko, aldiaren ezkutunetik gure asabek laga dauskuen altxor bardinbage ori.

Ordua urreratzen yat itzaldia amaitzeko, baiña beste zeozer eratsi gura dautsuet. Oraingo Euskaltzaindiak lengoaren urratsetatik alde egin ebanean, euskera trakets eta idazkera zentzunbakoaz endekatuz. eta bizkaiera eriotzera galduz, Euzkadi guztiko euskaltzale batzuk, gure burubideak alperrik aldarrikatzen genduzala ikusirik. beste akademi bat sortzea erabagi genduan, eta "Euskerazaintza" edo Euskeraren Erri-akademia sortu genduan.

Badira urte batzuk lanean diardugula euskalki guztien alde eta lengo Euskaltzaindiak onartutako idazkeraren alde. Zaila da gure egitekoa, euskal erakundeen geuganako oztasun eta ardurabakotasunaren artean. Ezdauskue bearreko dirurik emoten, apur ezain batzuk baiño ez, baiña aal dogun eran euskerearen alde ekiten dogu, askotan janariak eta bide-eralguntzak bakoitzaren pentzutik ordaindu bear doguzala, baiña uste dogu bide zuzenetik goazela, eta orrek bearreko indarra emoten dauku. aurrera jarraitzeko.

Besterik ez, lagun maiteok.

---

## GAUSONBASOA

---

Beti eukineben jakingura zergaitik Erriotzen, Arriarteko bazerri alde baso aundi-aundiak eukan "GAUSONBASO" izena, ta an jakineben bertako artean: "...baso aretan dagosela masusta aundienak ta gozuenak; zukalderako egur guraña, ta danetarako; kerizak inun baño obeak; zagar gozuenak; sorgiñ-pikoak ta basomatzak inunbela-koak; madari amestakoak; erbiak, mendi basoku, baso auntzak ugari, daneko lora politik; an dana da ikuzigarrea; zugatz aundienak ta onenetakoak arotzentzat ta etxeak egiteko; landarak, geratuteko begira betiko euren politasunari; baita danetako usain gozoekoak. An ikustenda bat, beste ludi eder baten...". Areiri entsunebenetik, GAUSONBASO-a zan, edo da, "ATSEDEN TOKIA".

Bai, bañe, geroago, izketan orren ondoren, Arriarteko langille bategaz, onek ezan eustan, dan ori egia zala, bañe ango dana jakiteko ona zala eukitea gogoan, an, ez cuela danori bakarrik. Egia da an ikusten dala bat, beste ludi baten lez... bañe, baita be BASO-an eusela: subiak malubi oostean, maresmak, ezpata eluliak, arantzak, ta ikaragarri ustegabeak". Entzun neutsanean a, itaun neustan: "¿Zelan da ori?", "ikaragarri ustengabeak?". Ta langille arek ezan eustan: "Bai, ez beti, baña batzuetan "ikaragarri uste-gabeak". Bigarrez entzun neutsanian ori, itauneutzan: ¿Zelan da ori? Ta Arriarteko langille on arek ezan neustan, egun txar baten ikusi ta ezagutu ebena beren begiakiñ an, GAUSONBASO-an, onelan:

—Bein, egitengeben lez zarri Arriarteko-lagun batzuk, baskalduta gero, eguardian, joangitzan GAUSONBASO-ra, egoteko an zugatzetan, goian, arnastuteko egurats garbea ta gozua. Orrelan gausenian, an goian, jazarrita, aztu ezin lezken egun aretan: lenengo, nabarutu geben, ixildu ziala txoriak, urtzintzak euesela igesik, labatxorriak ixilduziela, ta gero, entzun geben urriñean-lez garraziak, ¡baña zelako garraziak...! Orretan entzun geben bildugarri ainbat aundiago zarat, jauzikobazeleske baso gustea mendi-bera. Orretan, langille batek ezan eben: "¡Igo eigan danok, zugatz gaiñ gañera!", ta danok ori egin geben, bildurtuta.

Ortzen, an, an goitik ikusi geben, etorrela zarata ikarartean, basaurdi aundi bat, baña aundi-aundienetako, ariñ baño ariñago, amar zaldi baño zarata aundiagoaz. Baña oribe ez zan dana, entzuten gebelako ondiok zarata aundiagoak; ta agertu zean: iru basa-txakur aundienetakoak, aboaz zabalik, erakusten euren agiñ zorrotzak ta susko begiak ondo ereita, basurdi atzean. Baña ori be ez zan dana, agertu zalako, beinbe ez gebena ikuzi: jauzkada

luzetan, begiaktaitik, urtetan lez tximistak: katamotz luze ta aundi bat, jaraituten basaurdieari ta katagorriari...!

—Ta zuek. ¿an goi-goian zugatzetan ikusten danori? - itauneutzan.

—Bai, bai, gu geuzen an goi-goian larrituta, arnazgabe, ikusi barik ezin lezkena ziñistu: batek baño geiagok prakakiñ bustita...

—Ta, gero? - itaunen.

—Dana ixilduzanean jetsigean zugatzteitik, ta algeben ixillik, atzera begiratugabe, urten geben, makurtuta, GAUSONBASO-tik, txikituta, itzketako gogo-gabe, ziñistu ezi lezkenaz, arnazeaz erdi ebaita ta biotzaz dardaraka. Ondiok, orain, ulertu tendotenian, entzun ta ikusigebenak, bildurtuten naiz. Amesetan, bein, oietik jaiki nitzan...!

Ez da izango orregaitik, baso aundi onen beste aldeko bazerrikoak, Olazarretakoak, euren aldeko baso orri ipiñi eutzalea TXERRENEASOA? itauneutzan Arriarteko langille areri. Ta onek erantzun eustan: "Izan lezke, izan lezke", ta jarraitu eben ezaten: "Bein baten, izango dea bi urte, gutxi gora-bera, agertu zala, GAUSONBASO-an, apaiz gaste bat, etorresela Olazarreta baserri aldetik, andikoak ezaten ebela euren baso zatiari TXERREN-BASO. ulertuten dot ezan ebela apaiz arek: "... Ni zuen anaia naiz, danok anaia gara". Baita be, danon artean jazo lezkegula, baso erdian, etxe bat, Goikoen izenean. Ta gero kenduzala kapelia ta emun eutzala gurearteko bateri, onek emun eutzan beste bateri, ta orrelan esku batetik beste eskura, atzenian, eldu zan kapelia apaiz gastien eskuetara. Orduan, apaiza ipiñi zan belaunbiko, jazo eben besoak ta emun euskun eskerrak, baita be Goikoari. Ta gero etorri zan lez joanzan. Bai, ori ulertuten dot... Geroago, ikuzigebenaz GAUSONBASO-an, oldoztu geben zer izan gozan apaiz gaste ondoren. Baña jakinegun, bizizala Sapibai errian...

—Amaituteko izketa au gureartean- itaunduneustan: ¿Zuk ustendozu basoaundi oneri, bi izenak: Arriarteko baserri aldean, la Olazarreta baserri beste aldetik, bi izen orreik: "GAUSONBASOA", ta "TERRENBASOA", ondo dagozela ipiñita?

Izan lezke, izan lezke, bi izen orreik ondo dagozela ipiñita, baso aundi onen bi zatientzat erantzuneustan, Arriarteko asko-ikasi-langilleak.

**ONTZATEGITXU**

Lima. Perú

—Ipuin au dago idaztita, BIZKAI'ko antxiñako euzkerean.

---

## BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ

---

## TXATXALAK IRAKATSIA

(2n. saria)

Ez natorkizue ipui-zarra edo gezur-ipui bat kontatzera ez, kontu au, benetako kondaira da baina ez antzineko kondaira, gaur eguneko baiño.

Batzuk bear ba'da txantxetan nabilela pentsatuko dabe baina ez da orrela! ezta pentsatu ere. Egia esan, unkimenez bete nauan jazoera izan da.

Gaur egun, berri arrigarriak ikusi eta irakurtzen doguz komunikabideetan: "illik aurkitu dabe solairu batean bere amak itxitako aurtxo" edo «Bere jaiobarria ito dauan emakumea atxilotu dabe» Berri ikaragarriak benetan. Zorionez, orrelako ankerkeriak ez dira ain ugari izaten, gitxi batzuk larregi badira bere.

Orregaitik, agian, orain egun batzuk ikusi neban jazoerari erakusmeneko gauza zala iritzi neutson. Batzuentzat garrantzi gabeko gauza izan daiteke, baiña niretzat ikusgarria eta unkgarria izan zan. Jakiña, orain dala iru urterarte kaletarra izana naz eta orrek badau zerikusirik nire jokaeragaz. Orain,ostera, mendira etorria naz betirako, ardis eta txakurrez inguraturik egunero, eta batzutan abereengan gizakiengan baiño jokaera samurragoak ikusi daroadaz.

Egun batean, baratzean nenbilela, nire atzetik larratzen ibilitako bei bat erditzen ikusi neban. Ni lako asi berriarentzat ikaragarria zana, baina erditu orduko eta maitekiro, beiak bere kumea zelan miazkatzen eban ikusteak zirrara sartu eustan.

Andik egun batzutura lauzpabost ziran erditutako beiak eta inguruko landak adardunakaz eta euren kumeakaz alaitu ziran. Arratsalde batean, solotik etxeraiño bidean nenbilela, lauoinka baten zaratea entzun neban; nire aurretik, kataplan-ka itzalean eta marruta, txal bat etorren. Izuturik, alboratu nintzan eta, a nire ondolik igaro ostean, atzera begiratu ta aren ama ikusi neban kumearen gisara etorten. Une batez telebistan agertutako irakurgaiaren irudia etorri jatan barura: ama eta alabatxoa bata bestearenganantz korrika, eta alkar-tean, laztan eta mosuen orde, yogur baten hila asten ziran. Baiña emen ez, bei kumeak bere amaren titia arrapatu eban eta beia antxe bertan geldi-geldi geratu zan.

Denboraldi ederra izan da orain arteko au; beiak eta zaldiak landetan curen kumeez inguraturik ikustea oso atsegina da. Egun batean, andik jolas-ten ebulan trakur bat, txaltxo batenganantz urbildu zan eta bereala aren ama zutunik jarri eta, kumea minduko ebalako ustean, adarkada batez trakurra

arako muturrera bialdu eban, al baitariarengana eria croan bear eta guzi.

Baina egia esan, benetan biotzondokoa emon eustana orain aste batzuk gertatua izan zan. Gaueko lo-zorroan nengoanean, marru ozen batzuk entzun nebazan, eta auzokoak barrero beiaren bat itzi ebalu pentsatu neban. Gauero jabeak bei guztiak batu eta, ogi-zorro batzuk emon ta gero, kortarra eroaten dauz gaua an emon dagien. Azken egunetan osterata txala galdurik, aren ama, hila ibiltearren, ogi eta aterpe barik geratzen zan.

Ala ere, iñoiz ez zan aren moduko marrumarik entzun izan gaiñera, bazter guztietatik, etxe aurretik zein atzetik, marruka eta marruka gau osoan.

Urrengo goiz erdian, eta erdi lo, ogitan niñoiala, auzokoa ikustean bei abeslariak itandu neutson, eta berak "Parkatu..." esan eustan «...baiña ez da izan zuk pentsatu dozuna. Benetan sentitzen dot, baina lau-bost egunetan bardin gertatuko da. Ez da bat bakarra izan, atzo kume guztiak saldu genduzan eta euren amak billa ta billa dabiltz, deika gau eta egun titia emon guraz».

Naiz eta aren osteko gauak zaratatsuak izango zirala jakin, itzik gabe geratu nintzan eta egun aretan beiak beatzen egon nintzan. Andik ona eta emendik ara korrika ikustea lazgarria zan. Baten bat nora, besteak ara, korrika eta marruka aren atzetik, euren kumeak aurkitu ebalakoan, eta jatordua zanean, a zan zalaparta!

Ez da guzurra oso minbera nazala, egia da ori, baiña ainbat emakumek ez dabe erakusten orrelako amatasun biotzekorik. Bearbada beiak txatxal utsak dira, ez dakit nik; uda onetan,ostera,pentsatu izan dot eurengandik badaukagula zer ikasirik.

**PALMI MERINO**

=I=      =I=      =I=



# JON ARRUGAETAGAZ BERBETAN

(SIADECO)

Argi dago gaur eguneko gizartean errealitatearen azterlan partzialak, galdesortak, inkestek, ikerlanak, estatistikak eta datuak bear- bearrezko baliabide eta tresna bihurtu dira, inguratzen gaituen egoera aldakorrak ulertu eta konponbideak plantestzeko. Euskalerrian badira arlo orretan jarduten dabena ainbat enpresa. Orreotariko bat SIADECO dogu eta bertan bakiotar bat dabil bearrean: Uribarriko —Jon Arrugaeta. Gai onen garrantzia gogoan izanik, berari giro nasai eta patxadatsuan itaun batzuk egitea interesgarria izango zala begitandu jakun. Ona emen, bada, beragaz izandako alkarrizketea.

ZER: SIADECO kooperatibako kidea zaitugu. Azalduko deuskuzu, mesedez, zertan datzan erakunde onen bearra?

Jorr Arrugaeta: SIADECO 1967. urtean sortutako ikerketa alkarte da. Arrezkero, arlo sozio-ekonomikoan gai asko lantzen izan doguz: urigintza eta lurralde antolaketea, komunikabideak, ezkuntza esparrua, kultura esparrua, gazteria. drogamenpekotasunak, euskerea, au da, giz arteko arlo sektorial ugari lantzen doguz. Orreotariko, formazino ezbardinetako lankideak gagoz: ekonomilariak. soziologokk. zuzenbideko lizentziatuak.... Gure bearrean ikerketarako metodologiak garrantzi andia dauka azterketak egiteko bear dogun informazino eta datu guztiak orren bidez ataraten doguzalako. Gero datu orreek aztertu, arazoak eta urtenbideak ikusi eta proposamen zeatzak egiten doguz. Orregaitik, guk egiten doguzan ikerlanak aplik-atuak dira, gizarteko arazo zeatzak aztertu eta konponbideak topatzeko egiten doguzalako.

ZER: Ori orreelan izanik, aukera ezin obeak daukazuez gizarte onetako unibertso ezbardinak ezagutzeko. Beargin modura errealitate obeto ezagutu eta interpretatzeko bide gelago eukiko dozuez ezta?

J.A.: Bearbada, lar esatea da, baina, bai, ainbat errealitate ezagutzeko ankera eukiten dogu. Ganera, errealitate oso zeatzak izaten dira, ze leen esan dodan moduan guk azterketa aplikatua egiten dogu. Gogoan izan bear da, gure bezeroek beti eskatzen deuskuela errealitate jakin bateko azterlan zeatza, leku jakin baten eta gai edo arazo jakin bateri lotuta. Orrek, jakina, leku batetik bestera arazoak zelan aldatzen diran ikusteko aukerea be emoten deusku eta, olan, gai edo arazo beraren inguruko ainbeste bariante ikusikeran, estereotipoak eta aurreeritziak be gaintitu egiten doguz. Euskalerrria txikerra izango da, baina gai beraren inguruko azterlana erri edo toki diferenteetan egiten dogunean, sarritan ikusten dogu emoitza eta ondorioak ezbardinak dirana, leku bakotzak bere ezaugarriak daukaz eta. Alde orretatik, gure bearra oso interesgarria da, beti ibiltzen-garalako errealitate ezbardinak aztertzen.

ZER: Dana dala, badago naiko agiriko kontraesana zuk esandakoaren eta gertatzen danaren artean. Ze, orrelako bearrek aurreeritziak gaintitzeko aukerea emonda be, orrelako lanetan finkatu eta oinarritutako errealitateak sano estereotipatuak izaten dira.

J.A.: Gure bearrean oso garrantzitsua da gizartetik artzen doguzan datuak bear dan moduan sistematizatzea eta sallkatzea, eta ori ondo egiten bada, orrek ez dauka zerikusirik estereotipoak. Nik orren ganean esango neuke gurea lako enpresetako pro-

fesionalen arazoa baino geiago komunikazino arazoa dala. Nik SIADECO n egiten doguzan azterlan eta ikerketen inguruan egin daiket berba. Kontua da, bear bat egin eta gero, lanok plazaratu eta gizarteratzen diranean, boste bitartekari batzuk sartzen dirala tartean eta guk ezin dogu ori kontrolatu. Batzuetan, gure ikerketak artu eta an esaten diran gauza batzuk artu eta beste batzuk baztertzeo tentazinoa egon leiteke. Beste batzuetan, jendeak gauzak errez eta arin ulertzeko, azterketen ondorioak larregi sinplifikatzen dira.

ZER: Lagun soziologo batek beti esaten izan deust, lan soziologiko guztiak bearra agindu dabenen euskarari edo atxakia besterik ez dirala. Baiextapen ori zenbateraino artu leiteke egiazat!

J.A.: Guk, beintzat, ez dogu inoiz lan bat egin, aurretiaz artutako erabagi batzuk topatzeko edo arazoia emoteko. Egia da, bezero batek lan bat eskatzen deusunean, erabagi batzuk artzen lagutzeko erabili gura dauana, baina orrek olan izan bear dau. Beste gauza bat da, esatea erabagi au artu gura dot eta zuek (SIADECO) prestatu eidazue ori egin bear dala dinoan txosten tekniko. Ori guretzat onartezina izango litzateke, baina, orrez ganera, gure bezeroak ez deuskue inoiz olakorik eskatu. Ganera, badago beste aldaera garrantzitsu bat: SIADECO n atzetik ez dago ezlango talde ekononliko edo politikorik, bertan bear egiten dogun kooperatibistak baino ez.

ZER: Aitatu zeinkez oraintsu arte egin dozuezan bearrik interesgarrienak?

J.A.: Bear interesgarriak, esate baterako, komunikabideen arlokoak. Guk ETBko programen azterketak egiten izan doguz eta baita aldizkari ezbardinenak be, jendeak zelan baloraizen dauazan aztertzeko eta programa eta aldizkari orreen audientzia anditzeko sartu leitekezan barrikuntza edo aldatetak proposatzeko. Lan oneek, adibidez, sano interesgarriak dira, jendeak komunikabideen produktuak zergaitik kontsumitzen edo zergaitik kontsumitzen ez dauazan erakusten deuskulako. Era berean, erakutsi egiten deuskue komunikabideen inguruan baliabide eta diru asko erabilten dirana audientziak anditzeko, azken baten, elburnajendeak norberak esaten dauana entzutea edo norberak egiten dauana ikustea edo irakurtea dalako.

Orrez ganera, urigintzearen ganeko gaiak be oso inportanteak dira, arlo onek erakusten daualako etxebizitzaren eta ekipamenduen antolaketa zelango eragina daukan gizarte bizitzan. Erri bateko arau subsidiarioak aztertzeko deitzen deuskuenean guk urigintza gizartearen ikuspegitik aztertzen dogu. Orrek udalerrri bateko alderdi ezbardinen artean dagozan diferentziak erakusten dauz, alderdi bakotxaren berezitasunak, ez bakarrik ekipamendu, parke edo etxebizitzaren aldetik, baita bakotxean bizi diran pertsonen aldetik be. Donostiako kasua, adibidez, esanguratsua da. Gutariko edonori itaundu, zer deritxon Donostiari eta erantzuna izango da, ba, uri polita polita dala, burura Kontxa, Ondarreta, Alde Zaarra, Igeldo...etorten jakuzalako. Baina Donostian bertan badagoz beste auzo batzuk errealitate orregaz zerikusi andirik ez daukenak: Altza, Bidebieta, Martutene, Loiola auzoak. Orduan, orrelako azterketak eginkeran; uri edo erri baten datuak artu eta banandu egiten doguz ezaugarri ezbardinen arabera eta ortxe ikusten dira zelango diferentziak agiri diran bizi kalitateari eta bertako biztanleen ezaugarri jagokenez: ber-

## BARRIAK

deguneak; ekipamenduak, etxebizitzako metro karratuak, bertan bizi diranen ikasketa- mailea, lan egoera, adina, jatorria...

**ZER: Argi dago gaur egunean, Bakio naiko desegituratuta dagoana, orain dela 35-30 urte inguru egindako urigintza plangintza txar baten ondorioz. Orrelako bearretan esperientzia daukazuela aintzat-arturik, zeure eritxiz zer egin leiteke egoera au obetzeko?**

J. A.: Bai, Bakioko egitura urbanistikoa, batez be. 60-70eko amarkadetan erabili zan urigintza ereduaren ondorioa da. Emen Mediterraneo aldeko erri turistikoen antzeko zeozer sortu gura izan eben. Sasoi aretako urigintzak erria desitxuratu eta, ganera, ez ebazan kontuan euki erriko ezaugarriak eta bertoko erritarren asmoak. Aretzearen inguruan etxe bloke andiak eregi ziran eta apurka-apurka erri dinamika goitik beera joan zan, inguru orretara gero eta jende geiago eta gero eta ostalaritza eta merkataritza establezimendu geiago joan ziralako. Etxebizitza kopurua asko anditu zan Bakion, naiz eta EUSTATen 1996ko datuek esaten dabenez, geienak udako edo astebuetarako baino ez diran erabilten: lautik bat dira urte guztian okupatuta dagozan etxeak. Ordurik ona, gauzak aldatu egin dira. baina nire ustez, aspaldiko kontu oneek, oraindino be, eragina dauke gaur eguneko erri bizitzan. Gero, orrez ganera, erritarren bizimodua be sano aldatu da leendik ona. Leen, bearbada, jendea geiago ibiltzen zan edo ikusten zan errian, jendea gaur baino askoz gitxiago mugitzen zalako. Ze, datu zeatzik ez badauket be, gaur egun Bakion bizi arren, bearrean egunero-kanpora joaten diranak asko izango dirala pentzetan dot eta aurrera begira, jokaera au, bearbada, indartu egingo da. Etxe barriak egin eta errira jende geiago etorten bada bizitzen, bearbada, Bakio lo egiteko erri biurtuko da, baina orren eskutik zerbitzu batzuk zabaldu eta barriak sortzeko aukerak be andiagoak izan leitekez; Kontua da, ea etxe oneek udan bakarrik ala urte guztian erabiliko diran. Onegaz guztigaz esan gura dot, bakiotarren erri bizitzea bizkortu eta euren arteko artuemonak indartu gura bado-guz, oso inportantea izango dala, jendea alkartu eta batzeko aukerak sortzea, jendea erriari geiago lotzea eta orretarako erriaren neurriko urigintzea antolatatu bear dala uste dot. Azken baten, urigintzea errigintzearen zerbitzuan ipini bear da. Nire ustez, erriaren bizi kalitatea obetzeko oso garrantzitsua izango da Bakioren ezaugarrietara egokitutako azpiegiturak sortzea: oinezkoentzako ibilbideak, errian zear bizikletaz ibilteko moduko bide gorri sarea eta erriaren dinamika eta artuemonak erakarri eta bizkortuko dauazan esparru edo gune nagusia. Oneri lotuta, erritarren bizitzaren eta ingurunearen kalitatea jagoteko kotxeentzako azpiegiturak egiterakoan oso garrantzitsua izango da trafikoak erri barruan euki leiken eragina edo inpaktua aalik eta geien gitxitzea.

**ZER: Beraz, etorkizunari begira zeintzuk dira Bakiok euki daikezan urtenbideak?**

J.A.: Urtenbideak ezagutzeko, leenengo eta bein, datuak artu eta diagnostikoa egin bear da: bakiotarrek zer pentsatzen dabean, erakundeen asmoak zeintzuk diran, erriko arlo ekonomikoa zelan dagoan. Nik une onetan ez daukat orren barri zeatzik. Edozelan be, nekazaritzaren arloan zeozer bultzatzeko aukerarik dagoan ikusi bearko litzateke, baserriarren bearrak eta asmoak zeintzuk diran, baserriaren bideragarritasun sozioekonomikoko baldintzak eta abar. Ori guztiori, baserrian bear egiteko interesatuta dagozan guztiakaz aztertu bearko litzateke, ze makina bat asmo eta proiektu egonda be, ekimen pribatua ezinbostekoa da edozein arlo ekonomiko bultzatzeko. Izan be, baserriarren aldetik gauzak garbi ikusten ez badira eta euren inplikazioa lortzen ez hada, aalegin guztiak alperrekoak izango dira. Orduan, ikusi egin bearko litzateke nekazaritza eta baserri mundua zuzertzeko modurik dagoan.

Industria arloari jagokonez, interesgarritzat jotzen dot industria gunetxuren bat bultzatzea, enplegua errian sortu eta jendeak bertan bear egiteko aukerea euki daian. Beste kontu bat da, ekimen pribatua, au da, inbertsinoa errira zelan erakarri, ze gure inguruko erriek orretarako baldintza obeak daukez eta orduan ez da erreza izango. Baina ezin da albo batera itzi, orrek erritarrei beste lotura bat emoten deuselako erriagaz.


Gero, irugarren sektorean eta zerbitzuetan ikusten da urtenbiderik garbiena, baina Bakioko eskaria batez ere, une onetan, urte sasoiko epe labur batera, udari, jagoko. Beraz, elburua eskari ori urte osora zabaltzen joatea izango litzateke, baina, leengora bueltatuz, orretarako, gaur egun ez dagoan gitxieneko masa kritiko bat bear da biztanleen aldetik.

**ZER: Azkenik, SIADECOK beste makina bat bearren artean, euskerearen egoera aztertzeke metodologia aspaldian finkatu eban. Gai onen inguruan udalerrri askotan egin doze bear, bai eta Bakion be. Bakiotar modura euskerearen etorkizuna-zelan ikusten dozu errian?**


J.A.: Plazaratzen diran datuak, bearbada, baikorregiak dira, jakin-maileari buruzko datuetan oinarritzen diralako. Egia da, era berean, D ereduak lan eskerga egin dauana eta gazteek izkuntzeagaz gero eta artuemon andiagoak daukezana maila akademikoan. Dana dala, eguneroko artuemonetara jo eta benetako erabilereari buruzko datuak batu doguzanean ainbat udalerritan, jakin-maila eta praktikearen artean alde andia dagoana ikusi dogu. Eta orixe bera da Bakion be nik igarri egiten dodana: jakin-mailea %67 ingurukoa da, baina gero kaleko erabilerea askoz be txikiagoa dala esango neuke. Orren zergaitiak be onaxekoak izan leitekez: batetik, euskaldunen dentsitatea, euskeraz berba egiteko oso inportantea dalako euskaldunez osotutako taldeak izatea. Bestetik, orrez ganera, euskereak erabilgarria eta operatiboa izan bear dau, jendeak, euskeraz egiteko orduan, bere buruagaz gustura egon bear dau. Eta or dago kontua, ze burua eta biotza oso euskaltzale daukaguz, baina sarritan praktikan asko kostatzen jaku euskerea erabiltea. Gaur egun etxeko transmisinoak, neurri baten, baino ez dau funtzionatzen: umeari txikitari euskeraz egiten jako, baina umeak etxetik urten eta erriko dinamika erdaldunagaz topo eginkeran, erderara jotzen dau eta erdere sartzan dau etxe barruan. Ez ori bakarrik, sarritan gurasoak euskaldunak izan arren be, gure artean erderaz egiten dogu eta etxean bertan seme-alabei erderaz egiten deutsegu. Dana dala, esan egin bear da oraindino Bakiok aukera andiak dankazala orreri, neurri baten, bueltea emon eta agozko erabilerea anditzeko. Bakiotarrok argi eta garbi euki bearko dogu egoera au aldatzeko bestelako dinamika baten sartzea guztiz bideragarria dana. Lau puntu dira, beraz, gitxiengitxi kontuan artu bearko litzatekezanak: etxe barruko artuemonetan euskera gero eta geiago erabilteko aaleginak egitea; taldeetako dinamika euskeraz gauzatzen asteko bideak jorratzea, gune euskaldunak sortuz; aal dala, elduen astialdiko eta umeen olgeten jarduerak euskera utsean bideratzea, eta Bakioko euskera bizi gogoan izatea, izkuntza komunikatzeko tresna bat dalako baina, aldi beratan, geure erriko izakerearen ezaugarriak nagusienetarikoa. Orregaitik, edadekoen eta gazteen euskerearen artean jarraipenak egon bearko leuke, are geiago aintzat artzen badogu gure zaarren euskerea benetako eredu linguistikoa dana kalitate eta adierazgarritasunaren aldetik.

ZIDURI

# EUSKALDUN BARRIENTZAT



joan zaiteze, izar batetik bestera!




uadjizy

**KARMELE**



Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.  
48001 BILBAO

Akelarre. Nestor Basterretxea



## BAT GATOK EUSKAL KULTUREAGAZ

Erakundearen konpromezutzat  
artuten dogu, geure erri onen  
arimeagaz bat egitea. Orrexegaitik  
lagunduten deutsegu gogo osoz,  
geure nortasun berezia indartuten  
deuskuen kultur adierazpenai.

Eta aparteko arreta iminten  
deutsagu, kultur adierazpenen  
artean, gure ezaugarririk gorena  
dan euskerearen garapenari.

---

EZ DAGO GEIAGO ESKINTZEN DAUANIK

---

BBK

Bilbao Bizkaia Kutxa